



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| | |
|-----------|--------------|
| ESP.KODEA | 2021ORDE0002 |
| COD.EXP. | |

| | |
|---------------------------|--|
| ESPEDIENTEA EXPEDIENTE | APROBACION DE ORDENANZAS Y REGLAMENTOS |
| TITULARRA TITULAR | AZKOITIKO UDALA |
| TOKIA LUGAR | |

ALKATETZAREN DEKRETUA

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATEAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko legeko 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

AURREKARIAK

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 133. artikulua, Lege edo Araudia izaera duten arauen garapen edo gauzapen prozeduran herritarren parte hartzea erregulatzen du, arau eraiki aurretik, herritarren eta arau horren eraginpeko izan daitezkeen erakundeen iritzia jasoko dituen kontsulta egin beharra dagoela ezarri.

Egun, Azkoitiko Udala, Gizarte Larrialdiko Harrera-Etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautuko duen ordenantza eguneratze prozesuan dihardu.

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legeak ezarri bezala, kontsulta publikoa arauaren testua idatzi aurretik gauzatzen bada ere, prestakuntza- lanek garapen aurreratuko maila hartu behar dute. Horrenbestez, egoki da Gizarte Larrialdiko Harrera-Etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautuko duen ordenantza kontsulta publikora bidaltzea, etorkizuneko arau horrek eragin ditzakeen herritar eta erakundeen iritzia ezagutze aldera, eta honela, gai honi buruz dagoen dokumentazioa herritarren interesen mesedetara moldatu aldera.

Gizarte Ongizate Saileko arduradun teknikoaren eta Gizarte Ongizate Saileko Zinegotzi-delegatuaren proposamenarekin bat etorritik, apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 21.1.s) artikulua esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- Udal Ordenantza garatu eta egin aurretik, Gizarte Larrialdiko Harrera-Etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautuko duen ordenantza kontsulta publikoa egitea, 20 laneguneko epean zehar.

Beharrezko informazioa biltzen duen dokumentuak Gizarte Larrialdiko Harrera-Etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzen duen ordenantzaren memoria osatzen du, memoria hori ebazpen honetan atxikia dago eranskin gisara.

BIGARREN.- Ebazpen hau baliagarria izango da eta bere eraginak gauzatuko ditu Tokiko Korporazio honetako web gunean argitaratzen den egunetik aurrera: www.azkoitia.eus

HIRUGARREN.- Herritar, erakunde eta elkarteek bere iritzia helaraz ditzakete helbide elektronikoa honen bidez: gizar@azkoitia.eus

ALKATE-UDALBURUAK

**Nire aurrean
IDAZKARIAK**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiko Udaleko Gizarte Larrialdiko harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzen duen ordenantza eguneratzeko aurretiko kontsulta jasotzen duen txosten teknikoa.

1.- Ordenantzaren aurrekariak, testuingurua

2009ko uztailaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (133. zk.) argitaratutako Gizarte Larrialdiko etxebizitzaren araudia, egun indarrean dagoena, zaharkitua geratu da ez baitu jasotzen gaur egun eman daitezkeen erabilera anitzak, ezta bestelako xehetasunak ere.

12/2008 Legeak, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak 42.artikuluaren ezartzen duenaren arabera, Udalaren eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuek Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako (GZES) prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, 33 2 a) artikuluan udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, eta aditzera ematen du, oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, harrera-etxebizitza egongo da.

Ordenantza honetan beraz gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza arautuko da. Etxebizitza honetan alojamendua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonen eta bizikidetzaren unitateei, gizarte-larrialdiko edo emergentziako egoera batek eragindako alojamendu-gabeziari aurre egin ahal izateko.

Arestian aipatutako guztiak kontuan hartuta, beharrezko da Azkoitiko larrialdiko harrera-etxebizitza egungo errealitatera egokitzea. Izan ere, lehenik, egungo Azkoitiko Udaleko Gizarte Larrialdiko pisuaren araudia zaharkituta dago; eta, bigarrenik, GZESn jaso eta ondoren 185/2015 dekretuan azkoitiar batek zerbitzua eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak aldatu eta egokitu egin direlako.

2.- Konpondu nahi diren arazoak

Ezinbestekoa den arren araudia Gizarte Zerbitzuetako lege eta Zorro berria egokitzea, gaur egun azkoitiarrek pairatu dezaketen gizarte larrialdiko egoerei bat-bateko etxebizitza irtenbideetara egokitzeko beharra nabaritu da; eta, beraz, araudi honetan behar horiek jaso nahi dira. Honakoak dira:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Zerbitzu honek ostatu ematen die gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko edo genero-indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsoneri eta bizikidetz-unitateei.
- Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eskaintzen ez duena harrera-etxean etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari berariaz esleitutako langilerik. Halere, Azkoitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek jarraipena egingo die pertsoneri, etxebizitza beharra eraman duten egoerei eta, hala bada kasua, pertsona edo familia unitate bakoitzari dagokion arreta pertsonaleko planari.
- Araudi honen ondorioetarako, honakoak joko dira A) atalean aipatutako egoerak:
 - Famili harreman jasanezinak, tratu txar fisiko nahiz psikikoak direla eta. Baita ere, genero indarkeria jasaten duten emakumeak, beti ere norberaren edota etxebizitzan egon daitekeen pertsonen segurtasuna arriskuan jarri dezakeen egoerarik ez badago.
 - Udalak harrera zerbitzua behar duen pertsonaren nahiz pertsonen bizitoki den eraikina berehalako aurri-egoeran dagoela jotzea.
 - Famili unitatearen bizitokia den eraikina ez erabiltzeko moduan uzten duen hondamendia, sutea, uholdea nahiz antzeko ezbeharra.
 - Bestelako larrialdi-egoerak, gizarte txostenaren bidez behar bezala justifikatzen direnak.

Era berean, araudian jasotzen zen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ordenantzatik kentzeak ahalbidetuko luke unean-uneko egoerara egokitutako tasa bat finkatu ahal izatea zerbitzuaren araudi osoa aldatu gabe. Ideia da erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa urtero onartzen den ordenantza fiskaletan jasotzea, eta horrek malgutasuna emango luke herritarren beharretara egokitzeko, eta berau garrantzitsua da egun bizi dugun ezegonkortasun ekonomiko eta sozialaren aurrean.

Azkenik, herritarrei erraztasunak emateko ideiarekin, aukera dago egiaztatzeko datu-bitarataritzako plataformak baliatuta (NISAE) beste administrazio batzuetatik araudiak jasotako baldintzak, baita ere indarrean egongo den ordenantza fiskala aplikatzeko beharrezkoak direnak, baina ezinbestekoa da zerbitzua arautzen duen ordenantzak berak espresuki aukera hori jasotzea eta kontsultatuko den informazioa jasotzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- Onartzeko beharra eta aukera

Kontuan hartuta ordenantzaren aurrekariak eta testuingurua, konpondu nahi diren arazoak ere bai, aukera paregabea da aldaketa gauzatzeko. Gainera, Udalak indarrean duen araudi planaren baitan kokatzen da Larrialdiko harrera-etxebizitzaren ordenantzaren eguneratzea.

4.- Araudiaren xedea

Araudi honen helburua larrialdiko harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea da.

Baliabide honen sorrerak eta erregulazioak Udalak premiazko alojamenduaren arloan duen eskumena arautzen duten araudiei erantzuna ematen die.

Gizarte larrialdietarako etxebizitzaren xedea da erregelamendu honetako 2.artikuluari zehaztutako premia/larrialdi egoerei erantzutea etxebizitza hau aldi baterako erabiltzeko aukera eskainita. Etxebizitza hau lagatzeak zerbitzu publiko baten eskaintza suposatzen du; eta horregatik herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautzen duen araubidea bete behar du; beraz, aldi baterako harrerako etxebizitza erabiltzen duten pertsonak Azkoitiko Udalarekin izango duen harremana ez da alokairuari dagokion figura juridikoa izango. Etxebizitzaren lagatzea ez da mugagabea izango.

5.- Egon daitezkeen irtenbide arautzaileak eta ez arautzaileak

Aukera 1: Egun indarrean dagoen ordenantzarekin jarraitzea.

Jarraitu daiteke egun daukagun ordenantzarekin zerbitzua ematen, baina zerbitzua zaharkitua geratuko litzateke. Gizarte-errealitatera egokituko ez litzatekeen zerbitzua arautuko luke, eta azkoitiarrek eduki dezakete larrialdiko harrera-etxebizitza beharretara ez litzateke egokituko.

Aukera 2: Ordenantza berria onartzea

Aurreko ataletan plazaratutako guztia aintzat hartuta, ezinbestekoa da Larrialdiko harrera-etxebizitzaren ordenantza berria izapidetzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lehenik, gizarte-errealitatearen beharretara egokitzen den zerbitzua eskaintzea baita Azkoitiko Udalaren egitekoa; bigarrenik, egun indarrean dagoen ordenantza 2008ko Gizarte Zerbitzuei buruzko legera, eta bertako prestazioak eta zerbitzuak garatzen dituen 185/2015 dekretura egokitu beharko litzakeelako. Hirugarrenik, araudian jasotzen zen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ordenantzatik kentzeak ahalbidetuko luke unean-uneko egoerara egokitutako tasa finkatzea. Laugarrenik, eta, azkenik, herritarrei erraztasunak emateko ideiarekin, aukera emango zaie Udalak zuzenean egiaztatzeko datu-bitaratekaritzako plataformak baliatuta (NISAE) beste administrazio batzuetatik araudiak jasotako baldintzak, baita ere indarrean egongo den ordenantza fiskala aplikatzeko.

Iñaki Lasa Palacios
Gizarte Ongizate Saileko arduradun teknikoa



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU9107193e-bd87-41d5-a285-8f27dc9a0f05**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021ORDE0002-Ebazpena/Resolución (AZKOITIKO UDALA)